



## HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

### 2026ko urtarrilaren 7ko saioa

Bi mila eta hogeita sei urteko urtarrilaren 7an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

**Presente ziren:** CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Ezin etorriak:** AYCAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton

**Saioko idazkaria:** LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren data: 2026ko urtarrilaren 2a

Afixatze data: 2026ko urtarrilaren 2a

### **1. ERABAKIA: FUNTZIONARIO BATEK BETETZEN DUEN ENPLEGU BATEN LAN DENBORAREN ALDATZEA**

*(4.1.2 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio lehen klaseko eta denbora ez osoko teknikari laguntzaile enplegu bat (33,73 oren astean) sortu zela 2025eko urriaren 7ko 1.erabakiz.

Herri Biltzarrari azaldu dio enplegu horren asteko lan denbora aldatu behar dela Arrosategia etxearen mantenua egiteko.

Lan denboraren aldaketa %10ekoa edo apalagoa denez, eta CNRAClerako afiliazioaren galerarik eragiten ez duenez, ez da enplegu suntsitzetzat hartzen ahal.

Enplegua honela aldatzea proposatu du 2026ko urtarrilaren 8tik goiti:

Enplegua	Dago(z)kion gradua(k)	Kategoria hierarkikoa	Aurrekontuko zenbatekoa	Asteko batezbesteko lan denbora
Teknikari laguntzailea - Herriko eraikinak eta eskola	1. mailako teknikari laguntzaile nagusia	C	1	35 oren

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU - 2026ko urtarrilaren 8tik goiti, 1. klaseko teknikari laguntzaile nagusi enplegu baten batezbesteko lan denbora 33,73 orenetik (hastapeneko lan denbora) 35 orenera (lan denbora aldatua) iragaitea.

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 12

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2026ko urtarrilaren 7a

Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,  
2026ko otsailaren 12an argitaratu edo jakinarazi ondotik  
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.